

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	DOKUMENTAZIO TEKNIKOAREN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA HARRI NATURALEKO ELEMENTUAK LANTZEKO	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0746		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementuen fabrikazioaren programazioa eta gainbegiraketa	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko elementuen fabrikazioaren antolamendua	Iraupena	50
	Harri naturaleko elementuen produkzioaren kontrola		40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0867\_3 HARRI NATURALEKO ELEMENTUEN FABRIKAZIOA PROGRAMATZEA ETA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Fabrikazioko memoria teknikoak (marrazkiak, planoak eta zati-planoak) egiteko dokumentazio teknikoak interpretatzea eta garatzea, harri naturaleko elementuen produkzioa programatzeko abiapuntuzat hartzearen.

E1.1 Harri naturaleko proiektuak osatzen dituzten edukiak, dokumentuak eta egitura deskribatzea eta plano-mota guztiak eta informazio teknikoak (krokisak, zirriborroak, planoak, xehetasunak, zati-planoak) identifikatzea, fabrikazio-prozesurako beharrezkoa den informazioa (formak, neurriak, materialak, akaberak, elkarguneak) interpretatzea eta aztertzea, eta fabrikazioan arazoak eragingo dituzten erroreak edo ahazteak detektatzea.

E1.2 Fabrikazioko fitxen edo tiketen edukia eta egitura adieraztea, baita horiek egiteko teknikak edo prozedurak ere, dela sistema tradizionalen bitartez, dela programa informatiko espezifikoaren bitartez.

E1.3 Makinen, roboten eta zenbakizko kontrolako ekipamenduen programazioan erabiltzen diren datuak sartzeko eta kudeatzeko gailuak deskribatzea.

E1.4 Fabrikazio-memoria deskribatzea, memoria osatzen duten dokumentu guztiak eta memorian bildu beharreko informazio teknikoak adieraztea eta dagozkien pertsonei transmititzeko eta/edo artxibatzeko irizpideak adieraztea.

E1.5 Behar bezala zehaztutako kasu batean informazio teknikoak eta produkzioko informazioa ematen da; honako lan hauek egin behar dira:

- Dokumentazio tekniko guztia aztertzea eta erroreak edo ahazteak detektatzea.
- Landu beharreko piezen zerrenda osatzea eta moten arabera ordenatzea, sailkatzea eta kuantifikatzea.
- "Eskuzko" fabrikazio-fitxak edo -tiketak egitea.
- Fabrikazio-aginduak egitea.
- Laneko aginduak egitea.
- Programak dagozkien euskarrietan artxibatzea.

E1.6 Kurbadura sinplekun pieza baten zirriborro batean oinarrituta (arku baten dobela), arku kapaz sendoaren dimentsioak eta fabrikazio-prozesurako beharrezkoak diren txantiloak ateratzea.

E1.7 Eraikin baten fatxada eta fatxadaren zati-planoa biltzen dituen eta behar bezala zehaztuta dagoen kasu praktiko batean, pieza guztiak identifikatzeko sistema osatzea, fabrikaziorako beharrezkoa den informazioa bilduta modu eskematikoan eta laburbilduta, eta seriean fabrika daitezkeen piezen kopurua adieraztea.

E1.8 Balaustre baten osaera ematen da, eskudel eta guzti, kurbadura bikoitzarekin; informazio guztia, bai grafikoa, bai idatzizkoa garatzea, gerora eraikitzeko.

##### Edukiak:

##### 1. Harri naturala lantzeko prozesuetarako dokumentazio teknikoaren interpretazioa eta azterketa.

- Planoak, zirriborroak, krokisak, xehetasunak, zati-planoak. Interpretazioa.
- Euskarri informatikoak.
- Argazkiak. Aldizkariak. Bibliografia.
- Ekipamenduen eta makineriaren fitxa teknikoak.
- Materialaren fitxa teknikoak.
- Ekipamenduen eta makineriaren erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburuak, fabrikatzailearenak.

- Aplikatutako araudia. Laneko legedia.
- Laneko arriskuak prebenitzeko plana.

## 2. Harri naturala lantzeko prozesuetarako dokumentazio teknikoaren garapena. Diagramak. Kronogramak.

- Fabrikazio-fitxak eta -tiketak.
- Piezen zerrenda.
- Fabrikazio-aginduak.
- Laneko aginduak.
- Makinen, roboten eta zenbakizko kontroleko ekipamenduen programazioa.
- Fabrikazio-memoria. Egitura, edukiak eta dokumentuak.
- Dokumentazioa artxibatzea. Artxibatzeko irizpideak eta sistemak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.